

Autoeraketaren erronken gaia ardatz hartuta, uztailaren 15ean, Kooperatibagintzan Topaketaren hirugarren edizioa egingo da Aretxabaletako campusean

2015/07/01

2015eko uztailaren 15ean, Kooperatibagintzan Topaketaren hirugarren edizioa egingo da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Aretxabaletako campusean. **Aurtengo jardunaldiaren gaia izango da autoeraketaren erronkak** eta hizlarien artean Joan Subirats Humet Universitat Autònoma de Barcelonako aditua egongo da. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki Ikertegiak antolatatu du jardunaldia.

Jardunaldia irekia da baina, aretoa mugatua denez, **interesatuek aldeztu aurretik izena eman beharko dute uztailaren 10a baino lehenago.** Izena emateko idatzi edo deitu hurrengoetara:

- Tel: 943 71 41 57
- nelortza@mondragon.edu

EGITARUA

- 09:00 Ongi etorria. Bixente Atxa, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Errektorea.
- 09:15 Topaketaren kokapena. Eneritz Pagalday Tricio, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lanki ikertegia.
- 09:45. Hitzaldia: "Kooperatibismoa bada soluzioa, zein zen galdera? Perspektiba berriak aro aldaketaren aurrean". Joan Subirats Humet (IGOP – Universitat Autònoma de Barcelona).
- 11:00 Atsedenaldia.
- 11:30 Mahai-ingurua:
 - Estitxu Eizagirre Kerejeta (Argia).
 - Joxean Alustiza Usandizaga (Fagor Taldea).
 - Beñat Irasuegi Ibarra (Olatukoop).
 - Carlos Askunze Elizaga (REAS).
- 12:45 Eztabaida irekia.
- 13:15 Sintesia eta itxiera.

Eguneraketa: [jardunaldiko argazki galeria](#).



Aretxabaletako campusean egingo da jardunaldia.